

Habilitazioak: beste espezialitateak eskuratzea

Zer da?

Lekualdatze-Lehiaketan beste espezialitate bateko lanpostuak eskatu ahal izateko aurretik eginda izan behar den tramitea da. Hau da, EPEan ateratako espezialitatetakoaz gain, Lekualdatze Lehiaketan beste espezialitate bateko/batzuetako lanpostuak eskatu ahal izateko egin beharreko kudeaketa, ez baitira espezialitate guztiak automatikoki aitortzen.

Tramitea egiteak ez zaitu behartzen beste espezialitate batera pasatzera, aukera zabaltzen dizu Lekualdatze Lehiaketan espezialitate bat baino gehiagotako lanpostuak eskatzeko, hala nahi izanez gero.

Nork egin dezake?

Tramite hau **soilik maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek** egin dezakete. Tramitea egiteko ez da beharrezkoa jada behin-betiko destinoa izatea.

Zeintzuk dira bete beharreko baldintzak?

Tramitea eginda izateak ez du esan nahi tramitea onartu bezain laster beste espezialitate batera pasa ahal garenik. Tramitea eginda izateaz gain, beste espezialitate batera pasa ahal izateko ondorengo baldintza bete behar da: **behin-betiko lehen destinoa EPEa gainditu den espezialitatean lortu behar da Lekualdatze Lehiaketan.**

Orduan, zergatik egin tramitea lehen destinoa lortu baino lehen? Tramitea eginda uzteko etorkizunerako, Hezkuntza Sailak ez baitu epe zehatz batean erantzuna ematen (batzuetan egunean berean kudeatzen dute, baina beste batzuetan asteak edo hilabeteak itxoin behar izan dira onarpena jasotzeko, eskaera kopurua handia den garaietan).

Noiz eta nondik egiten da eskaera?

Urteko edozein momentutan egin daiteke eskaera, ez du epe zehatz bat. Halere, Hezkuntza Sailaren onarpena noiz jasoko den ziurtasunik ez dagoenez, ELAtik gomendatzen dugu tramitea ez uztea azkeneko momenturako. Hau da, hurrengo Lekualdatze Lehiaketan jada habilitazioa erabili nahi eta ahal bada, Lekualdatze Lehiaketa horren aurreko hilabetera ez itxoitea gomendatzen da, izan ere, onarpena jaso ez bada, ez da aintzat hartuko Lekualdatze Lehiaketa horretan, baizik eta hurrengoan.

**EIZU → Nire gestioak → Eskaerak aurkeztea → Langileen administrazioa →
Espezialitateen aitortzearen ebazpena (Maisu-maistrak) → Espezialitateen aitortzea**

Gogoratu soilik maisu-maistren kidegoko funtzionarioek dutela atal hau ikusgai EIZUn.

Zeintzuk dira eska daitezkeen espezialitateak?

Maisu-maistren kidegoan aitortu daitezkeen espezialitateak hauek dira:

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelera
- Atzerriko Hizkuntza: Frantsesa
- Atzerriko Hizkuntza: Alemana
- Gorputz Hezkuntza
- Musika
- Pedagogia Terapeutikoa
- Entzumena eta Mintzamina

Espezialitate horiek aitortu ahal izateko, eskatzaileak espezialitateari dagokion beharrezko titulazioa izan beharko du.

Azaroaren 4ko 1594/2011 dekretuan prozedura osoa zehazten da.

Hezkuntza Sailak 2022an argitaratu zuen informazio oharra:



OHAR GARRANTZITSUA

MAISU-MAISTREN LEKUALDATZE-LEHIAKETA ETA ESPEZIALITATEEN ONARPENA

Maisu-maistren lekualdatze-lehiaketetan, azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako titulazio-baldintzak betetzen dituzten beste espezialitate bateko lanpostuak eskatu ahal izateko, espezialitatea aldeztu aurretik onartuta egon behar da, interesdunak eskatuta (bete ohar honen aurreko ataletako jarraibideak). Administrazioak ez ditu espezialitateak ofiziosz aitortzen.

Estatuko lekualdatze-lehiaketaren hurrengo deialdiaren aurrean, gomendatzen dugu, hasi aurretik, hurrengo lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi duten eta beste espezialitate bat eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak ahalik eta lasterren egitea.

Ez dira lekualdatze-lehiaketan baliozkotzat joko aurretik ezarritako prozeduraren arabera aitortu ez diren espezialitate-eskaerak, nahiz eta lehiakideak dagokion espezialitatea eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten titulazioak izan.

Zer gertatzen da gainontzeko kidegokoekin (Bigarren Hezkuntza etab.)?

Gainontzeko kidegotan ezin dira habilitazioak eskatu. Beste espezialitate bat lortzeko "barne EPE" bezala ezagutzen dena egin behar da (EPE deialdiaren barruan "Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura" deiturikoa). Deialdian bertan zehaztuta daude prozeduraren nondik-norakoak. Bestalde, Lekualdatze Lehiaketaren baremoan jasota dago EPE mota honen bidez beste espezialitate bat lortzen duenari hainbat puntu aitortuko zaizkiola.